

UDALBILTZA[®]

ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK 2008



EUSKAL HERRIKO UDAL ETA UDAL HAUTETSIEIEN BILTZARRA

IGOR PORTU ETA MATTIN SARASOLAREN ATXILOKETAK

Igandean atxilotuak izan ziren Igor Portu eta Mattin Sarasola ustezko ETA-kideen egoeraren inguruan, UDALBILTZA[®]k honako hau adierazi nahi du:

1. Euskal Herriaren eraikuntza nazionala demokrazian, bakean, atxikimendu librean eta giza-eskubide guztien errespetuan soilik oinarritu daiteke.
2. Printzipio hauek behin eta berriz eramaten gaituzte edozein indarkeria eta giza-eskubide urraketa gogor salatzeraz.
3. Igor Porturen kasuan azaldu diren tortura zantzu larrien aurrean, Espainiako Gobernuari kasua sakoneraino aztertu eta eman beharreko azalpen guztiak eman ditzala exijitzen diogu, ondorioztatu daitezkeen erantzukizunen beldurrik gabe.
4. Demokrazia eta giza-eskubideen errespetua erabateko printzipioak direla uste dugu, beti eta edonori zor zaizkionak.

UDALBILTZA[®]ko Zuzendaritza Batzordea

Agurain, 2008ko urtarrilaren 9an

EUSKAL ERAKUNDEEN ALDE



Espainiar Estatuko Auzitegi Gorenak, Juan Mari Atutxa Legebiltzarraren lehendakari ohia eta bere garaian Gorka Knörr eta Kontxi Bilbao Ganbarako mahaiko kide izan zirenei ezarritako zigorren aurrean, UDALBILTZA[®]tik ondorengo hau adierazten dugu:

1. Herritarrek borondatez aukeraturiko erakunde publikoen kontrako eraso, zuzenki demokraziaren kontrako eraso da.
2. Botere judizialaren politizazioak, behin eta berriz adierazi dugun botereen arteko beharrezko independentziaren haustura ez ezik, Legebiltzarrak berezkoa duen subiranotasunaren eta euskal autogobernuaren zapuzketa dakar.
3. Alderdi politikoen legea, estrategia politiko jakin baten arabera diseinaturiko legea izanik, ideia eta ideologiaren kriminalizazioaren adibide argia da. Giza eskubide guztien errespetutik etorriko da normalizazioa.

Gatazkak konpontzeko eta normalizazio politikoa lortzeko biderik demokratikoenaren eta oinarrizkoenaren aurka jo du berriro Espainiako Auzitegi Gorenak, hau da, elkarrekin hitz egitearen aurka; euskal erakundeei egiten zaion eraso larria eta, azken batean, euskal gizarte osoaren aurkako eraso.

UDALBILTZA[®]tik erabateko babesa agertu nahi diegu Juan Mari Atutxari, Gorka Knörri eta Kontxi Bilbaori. Era berean, dei egin nahi diegu Euskal Herriko udal hautetsi guztiei eta oro har, euskal herritar guztiei, *Gure erakundeen alde* egingo diren ekimenetan parte hartzera, euskaldunon haserrea ozen ager dadin eta denok batera euskal erakundeen kontrako eraso salatuz Eusko Legebiltzarraren independentziaren alde egiteko.

Julian Eizmendi Zinkunegi
UDALBILTZA[®]ko Lehendakaria

JACQUES MORIO ETA JEAN NOEL ETXEBERRIREN ATXILOKETAK

Ipar Euskal Herrian, Frantziako poliziaren operazioan Jacques Morio eta Jean Noel Etxeberriren atxiloketen inguruan, UDALBILTZA[®]k honako hau adierazi nahi du:

1. Euskal Herriaren eraikuntza nazionala demokrazian, bakean, atxikimendu librean eta giza-eskubide guztien errespetuan soilik oinarritu daiteke.
2. Ipar Euskal Herrian eta ezta ere Euskal Herria osoan, indar eta ahots abertzalea ez dute isilduko ezein motatako erasoen bitartez. Horrelako jokabideek daukagun gatazkaren egoera handitu besterik ez du egiten. Euskal Herriaren normalizazioa eta bakegintzaren bidean atzera pausua suposatuz.
3. "Dena ETA" denaren printzipioan, pertsona soiletik hasita erakunde eta alderditaraino dena kriminalizatzea, Frantzia eta Espainiako Gobernuaren bake eta normalizazio nahi eza erakusten du.

Honenbestez, UDALBILTZA[®]k dei egiten die Euskal Herriko udal hautetsi guztiei eta oro har, euskal herritar guztiei, Baionako udaletxe aurrean, egunero, egiten ari diren kontzentrazioetan parte har dezaten.


UDALBILTZA[®]ko Zuzendaritza Batzordea

Euskal Herrian, 2008ko otsailaren 7an

EAE/ANV eta EHAK

UDALBILTZA[®]ren adierazpen instituzionala, EAE-ANVren eta EHAKren jarduerak hiru urtetarako etetearen erabakiaren eta Ezker Abertzaleko politikariak atxilotzearen inguruan:

1. Erasoek edo eskubide sozial eta politikoen murrizketek gure Herriaren bakea eta normalizazio politikoa urruntzen dute; Euskal Herriko herritarrei zuzenki erasoaz askatasunean, atxikimendu librean eta demokratikoki etorkizuna erabakitzeko eskubidea.
2. Alderdien legeak, alderdi politikoen ilegalizazioek eta beraien bozeramaleen atxiloketek, momentu hauetan Euskal Herrian bizi dugun gatazka areagotu besterik ez dute egiten.
3. Hauteskundeak, demokraziaren ezaugarri oinarrizkoenatariko bat izanik, edozein indar politikoaren parte hartzea debekatuta, zenbait pertsonen hautuari muzin egiten zaio, oinarrizkoa eta funtsezkoa den giza eskubidea urratuz, gure gizarteko normalizazio politikotik aldentuz.
4. Euskal Herriaren eraikuntza nazionala, soilik demokraziatik, bake bideetatik eta giza-eskubide guztien errespetutik etorriko da. UDALBILTZA[®]tik, bide hauetatik jarraituko dugu.



Julian Eizmendi Zinkunegi
UDALBILTZA[®]ko Lehendakaria

Euskal Herrian, 2008ko otsailaren 12an

ISAIAS CARRASCOREN ERAILKETA


ETAk gaur Arrasaten egin duen atentatua, Euskal Herria, demokrazia, bakea eta euskal herritar guztien kontrako atentatua izan da.

Atentatua ozenki salatzeaz gain, UDALBILTZA[®]tik ETAk erail duen Isaias Carrascoren sendiari eta PSEko jarraitzaile guztiei gure dolumin eta elkartasun osoa erakusten diogu.

ETAk gupidarik gabe berriz ere euskal gizartearen aurka jo du, indarkeriari bai eta normalkuntza politikoari ez esatea suposatzen duen erailketarekin. Ezein gizabanakoak ez du Estatuak inposatutako eskubide zibil eta politikoen murrizketen erantzule izan behar.

Euskal Herriaren bakea eta erabakitzeko eskubidea defendatzen ditu UDALBILTZA[®]k eta horiexek defendatu ditu iraganean eta defendatuko ditu beti. Euskal gizarteak erabakitzeko eskubidea baitu bakean, demokrazian eta askatasunean.

Era berean, dei egiten diegu Euskal Herriko udal hautetsi eta oro har, euskal herritar guztiei, atentatu hau gogor gaitzesteko egingo diren ekimenetan parte hartzeko, euskaldunon haserrea ozen ager dadin eta denok batera biolentziarik gabeko Euskal Herri demokratikoa aldarrikatzeko.



Julian Eizmendi Zinkunegi
UDALBILTZA[®]ko Lehendakaria

Euskal Herrian, 2008ko martxoaren 7an

ETAren ATENTATUA PSE-EEko EGOITZAREN AURKA

ETAk Bilboko Abusu auzoko PSE-EE egoitzaren aurka egin duen atentatuaren aurrean UDALBILTZA[®]k honakoa adierazi nahi du:

- UDALBILTZA[®]K erabat gaitzesten du atentatua eta babesik eta elkartasunik zintzoena adierazi nahi dizkie die zauritutako eta kaltetutako pertsonekin.
- Elkarrizketa eta akordioa dira konponbidea eta normalkuntza politikoa lortzeko bideak, baina bide horretan aurrera egiteko oztopo nagusia oraindik ere, ETA da.
- Beste behin ere, alderdi eta eragile politiko guztiok, eta gizarteak orokorrean, ETARI armak eta biolentzia betirako uzteko eskatzen diogu.

Testuinguru honetan, jazarpen politikoak oztopo bihurtzen dira, baita giza eskubideen urraketa oro eta bortizkeriaren iraunkortasuna ere. Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea, soilik bide demokratikoetatik, bake bidetik eta askatasun osoarekin babesten du eta babestuko du UDALBILTZA[®]k.

UDALBILTZA[®]ko ZUZENDARITZA BATZORDEA


Euskal Herria, 2008ko apirilaren 17a

INO GALPASORO, ARRASATEKO ALKATEAREN ESPETXERATZEA

Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzón epailearen aginduz, Ino Galpasoro, Arrasateko alkatea espetxeratu izanaren aurrean UDALBILTZA[®]k honakoa adierazi nahi du:

1. Honelako atxiloketa eta espetxeratzeek ez gaituzte ez bake eta ez normalizazio politikora eramaten. Neurri hauek geure artean daukagun gatazka handitu besterik ez dute egiten eta egungo egoerari irtenbide bat emateko aukera ixten dute.
2. Baina UDALBILTZA[®]tik argi esan nahi dugu, ETA herri honetarako normalizazio bidean oztopo nagusia izaten jarraitzen duela. ETAREN biolentziaren aurrean udal hautetsiok portaera garbia izan behar dugu, arbuia eta gaitzetsi behar dugu.

ETA eta tankera honetako erabaki judizialak ez dira benetako demokrazia baten bermatzaileak inondik inora. Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea, soilik bide demokratikoetatik, bake bidetik eta askatasun osoarekin babesten du eta babestuko du UDALBILTZA[®]k.



Julian Eizmendi Zinkunegi
UDALBILTZA[®]ko Lehendakaria

Euskal Herria, 2008ko maiatzaren 7a

ETAren ATENTATUA LEGUTION

ETAk gaur Legution egin duen atentatua, Euskal Herria, demokrazia, bakea eta normalizazio politikoaren kontrako atentatua izan da.

Atentatua ozenki salatzeaz gain, UDALBILTZA[®]tik ETAk erail duen Juan Manuel Piñuel Villalonen familiartekoei eta atentatuan zauritutakoen sendiei gure dolumin eta elkartasun osoa erakusten diegu.

ETAk gupidarik gabe berriz ere euskal gizartearen aurka jo du, indarkeriari `bai´ eta normalkuntza politikoari `ez´ esatea suposatzen duen erailketarekin.

Berriz ere argi utzi nahi dugu, soilik bide demokratikoak, elkarrizketa eta akordioa direla konponbidea eta normalkuntza politikoa lortzeko jarraibideak; eta lorpen horretarako, oztopo nagusia ETA izaten jarraitzen duela. Beraz, alderdi eta eragile politiko guztiok, eta gizarteak oro har, ETARI armak eta biolentzia betirako utz ditzala exijitzen diogu. Ezin gara ixilik geratu, beharrezkoa da ETAren aurka, postura irmoa eta argia izatea.

UDALBILTZA[®]tik, euskal gizarte osoari dei egiten diogu atentatua gaitzesteko burutuko diren ekitaldi eta elkarretaratzetara agertzeko.

UDALBILTZA[®]ko Zuzendaritza Batzordea

Euskal Herrian, 2008ko maiatzaren 14ean

ETORKIZUNA ERABAKI BEHAR DUGU

Bakea eta normalizazio politikoa lortzearen, herriari zer nahi duen galdetzea delitu bihurtu al da?

Euskal Herri bakarra errealitatean bihur dadin, proiektu anitz sortu, garatu eta bultzatu ditugu. Hori baita gure konpromisoa.

Egun bizi dugun giro politikoa ez da gure Herriaren benetako eraikuntzarako egokiena. Ez dago elkarrenganako errespeturik.

Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako galdeketari buruzko Lege Proposamenak herriaren bultzada du helburu. Herriaren borondatea zertarako adierazi? Jasaten ari garen blokeo politikoa apurtzeko, negoziaketa prozesua irekitzeko, azken finean, bakea eta normalizazio politikoa lortzeko. Kontsulta funtsezko urrats bezala ulertzen dugu korapiloak askatzeko, aterabiderako, bakea lortzeko eta herritarren borondatearen indarrean oinarrituta soilik, elkarren arteko errespetuan oinarrituta, gizarte honek bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubideaz akordio demokratikoa lortzeko, denon ahaleginarekin eta inor baztertu gabe.

Bakea eta normalizazio politikoa lortzearen, Herriari ahotsa ematea, duen iritzia galdetzea, delitu bihurtu al da? Bere burua demokratikotzat duen Estatu batek uka al dezake galdeketa baten konstituzionaltasuna?

Ezetzean gaude. Herri-galdeketen legezkotasuna eta zilegitasun demokratikoa Europan zehar aspaldidanik bermatuak daude, Estatu askok gisa honetako formulak erabili baitituzte barne gatazkak konpontzeko. Eta hemen ere, erabat zilegizkoa den tresna demokratiko eta oinarrizko honekin, gure Herriak dituen sakoneko arazoei, biolentziari eta erabakitzeko eskubideari, aterabide berri bat eskaini nahi zaio.

Nazio Eraikuntza prozesu dinamiko eta integratzaile bat bezala ulertzen dugu. Eta Nazio Eraikuntza horretan, mugari garrantzitsu baten aurrean gaude, gure Herri zaharraren izatea aitortzeko bidean. Egia da Herri-galdeketa proposamena ez dela Euskal Herri osora hedatuko. Baina hori horrela izanda ere, zalantzarik gabe, Euskal Herri osoarentzat historikoa izango den egun baten atarian gaude.

Udal hautetsiok, berriro ere aitortzen dugu Herri bat garela, Herri bat osatzen dugula, eta eskubidea dugula, era baketsu eta demokratikoki, denon artean geure etorkizuna erabakitzeke.

GORA EUSKAL HERRIA
GORA EUSKADI ASKATUTA!


Iruñean, 2008ko ekainak 25



EAE-ANV ETA EHAK ALDERDIAK LEGEZ KANPO

UDALBILTZA[®]ren adierazpen instituzionala, Auzitegi Gorenak EAE-ANV eta EHAK alderdiak legez kanpo uztearen erabakiaren inguruan:

1. Alderdien legeak, alderdi politikoen ilegalizazioek eta beraien bozeramaleen atxiloketek, momentu hauetan Euskal Herrian bizi dugun gatazka areagotu besterik ez dute egiten.
2. Hauteskundeak, demokraziaren ezaugarri oinarrizkoenatariko bat izanik, edozein indar politikoaren parte hartzea debekatuta, zenbait pertsonen hautuari muzin egiten zaio, oinarrizkoa eta funtsezkoa den giza eskubidea urratuz, gure gizarteko normalizazio politikotik aldentuz.
3. Honelako erabakiek sistema judiziala ukitu politikoez kutsaturik dagoela adierazten dute, hala nola: fiskatza, Estatuko abokatutza eta Auzitegi Gorena. Iritzi politikoa eta indarkeria bi esparru guztiz ezberdinak direlako.
4. Alderdien legeak ez digu bakerik ekarriko eta akordioa bera lortzea ere, zaildu egiten du. Bide politikoak dira soilik bakea eta akordioa ekarriko dizkigutenak, tartean Herri Kontsulta gisarako erreminta demokratikoa ahaztu gabe.
5. Euskal Herriaren eraikuntza nazionala, soilik demokraziatik, bake bidetatik eta giza-eskubide guztien errespetutik etorriko da. Udal hautetsiok, UDALBILTZA[®]tik, bide hauetatik jarraituko dugu.



Julian Eizmendi Zinkunegi
UDALBILTZA[®]ko Lehendakaria

Euskal Herrian, 2008ko irailaren 23an

ETAren ATENTATUEN KARIRA

ETAk gaur **Santoñan** egin duen atentatua, Ondarroako Ertzaintzaren komisaldegian eta Gasteizko Vital Kutxan asteburuan egindakoarekin batera, Euskal Herria, demokrazia, bakea eta euskal herritar guztien kontrako atentatuak izan dira.

ETAk gupidarik gabe berriz ere gizartearen aurka jo du, indarkeriari bai eta gizabidezko elkar-bizitzari ez esatea suposatzen duen erailketarekin eta atentatuekin.

Berriro ere ozenki diogu: indarkeria eta politika bateraezinak dira eta ETA Euskal naziogintzan oztopo nagusia da. Euskal Herriaren bakea eta etorkizuna erabakitzeke duen eskubidea lortu behar ditugu, bide demokratikoak soilik erabiliz eta elkarganako errespetoan oinarrituta.

Atentatua ozenki salatzeaz gain, UDALBILTZA[®]tik ETAk erail duen Luis Conde de la Cruz-en sendiari gure doluminik egiazkoena erakutsi nahi diogu.



Julian Eizmendi Zinkunegi
UDALBILTZA[®]ko Lehendakaria

Euskal Herrian, 2008ko irailaren 23an

UDALBILTZAREN ADIERAZPENA INAZIO URIA MENDIZABALEN ERAILKETAREN AURREAN

ETAk gaur Inaxio Uria Mendizabal enpresari azpeitiarra hil duela eta, Udalbiltzak zera adierazi nahi du:

- 1.- Inaxio Uria Mendizabalen heriotza eragin duen atentatuaren aurrean bere gaitzespenik tinkoena azaldu.
- 2.- Inaxioren familiako, lagun eta lankideei bere elkartasun eta doluminik sentikorrena adierazi.
- 3.- Une samin hauetan, euskal enpresari guztiei erabateko elkartasuna adierazi.
- 4.- ETArri esijitu indarkeria eta armen bidea behin betiko utz ditzala.
- 5.- Dei egiten diegu euskal hautetsi eta herritar guztiei erailketa anker honen aurka egingo diren ekitaldi guztietan parte hartzera eta gure Herriaren pake eta normalizazio politikoaren alde lanean jarraitzera.



Julian Eizmendi Zinkunegi
UDALBILTZA[®]ko Lehendakaria

Euskal Herrian, 2008ko abenduaren 3an